

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernua iragan ostiraletik NPEren laguntzen 28,8 milioi euro ordaintzen hasi da

*Bigarren ordainketa da, iragan urrian beste 52,2 milioi euro ordaindu ondoren*

Astelehena, 2016.eko abenduak 12

Nafarroako Gobernua iragan ostiraletik 28,8 milioi euro ordaintzen hasi da NPEren (Nekazaritza Politika Erkidea) 23.496 laguntzatarako. Zenbateko hori urri eta azaro artean dagoeneko ordaindutakoari (52,2 milioi) gehitu behar zaio, hau da, 81 milioi guztira, egin daitezkeen ordainketen % 93.

Laguntzak zenbait lerrori dagozkie: oinarritzko ordainketa, ordainketa berdea eta hainbat laborantzari eta ganadu-ekoizpenari emandako laguntzak. Hala, zenbateko handienak oinarritzko ordainketarako, 17,9 milioirekin (11.715 titular), eta ordainketa berderako dira, 9 milioirekin (8.379 titular).

Gainerako laguntzak honako hauek dira: behi ume-hazleak: 682.457 euro (957 titular); esnetarako behiak: 637.836 (177 titular); laborantza proteinadunak eta olio-lihoak: 284.031 euro (1.810 titular); eraldatzeko tomateak: 125.521 euro (134 titular); arropa: 58.397 euro (101 titular); erremolatxa: 40.754 (16 titular); oskoldun fruituak: 6.826 euro (205 titular); eta kalitatezko lekak: 1.551 euro (2 titular). Aipagarria da titular berbera laguntza-lerro batean baino gehiagotan egon daitekeela.

Egokitutako laguntzetatik (abeltzaintza eta azalerak) dagokion zenbatekoaren % 90 ordaindu da, eta egokitu gabeko laguntzetatik (oinarritzko ordainketa eta ordainketa berdea), % 95. Aplikatutako segurtasun-koefiziente horiek sortu dira estatu-mailan erreserba nazionalari eskatutako gehiegizko aurrekontu batek eraginda. 2017ko lehenengo hiru hilabeteetan behin betiko koefizienteak zehaztuko dira eta, hala badagokio, gainerako portzentajea ordainduko da, baina hura ez da % 5 baino gehiago izango egokitu gabeko laguntzetan eta % 10 egokitutakoetan. Gainera, ardi-ahuntzen nahiz gizentzeko azientarako laguntzak ordaintzeke geratzen dira, harik eta FEGAk unitateko zenbatekoak zehazten dituen arte.



Gobernua aste honetan NPEren 28,8 milioi euro ordaintzen hasi da.